



ALPERRA

MUTIL biziyak, pizkorrak jayotzen dira; baña tartian, tartian, alperak ere bai.

Baña alper tartian, Oztolegor'eko Premiñ'en neurrikuak, guchi, oso guchi gertatzen dira.

Jayotzetik alperra zala ziyoten ausokuak: chikitan alper chikiya, ta aunditzen zijuan bezela gero ta alper aundiagua, ta azkenian ikaragarrizko alperra.

Alegiñak egin zituzten gurasuak, mutilla piška bat bizitu azitzen ote zuten, bañan lan oyek ere alperrari zegokiyon aldetik, alperrikuak izandu ziran.

Orišen da bada alper jatorra, esaten zuben erretore jaunak: mutill ori, jakiya abora ez eramatiagatik jan gabe egongo litzake.

Oso oso egiya danik esaera ori, ez nuke nik esango; bada mutilla sendo ta gizena dago; ta ez det uste nik alperkeri utzak ala gizendu lezakenik iñor, jaki oparo šamarrak sabelera eraman gabe.

Beraz mutilla mardul eta ederra azi zan, bañan alperra, orain arte ezagutu diran guziyai gañezkoa egiteko alakua.

Aita gizarajua zayatu zan naikua mutilla zuzentzen ote zuben: batzubetan onian, bestietan charrian; bañan charra ta ona berdin izan ziran, mutilla geruago ta alperrago zegoen.

—Mutil, morroi bigalduko at, esaten ziyon aitag, irekin echian ezin burutu diat eta.

Etzion ordia mutillari ezeren gatik ajolarik.

—Eskonduko balitz, esaten zuben batzuetan amak, onenian arreta geyago izango luke.

Ortarako zegon Premiñ. Neskachen ondotik asi ezkeru nekatu

egingo zan, ta bildur aundiya zion nekiari. Mutilzar izateko jayua zan. Ezin eskontzeko asmorik artuko zuben.

Beraz guraso gaiso ayek gelditu ziran beren seme arrekin zer egin etzekitela; lanik ezin eragin azi, alperkeriz puskaka zijoan mutilla. Etzeukaten beraz beste biderik eta morroi bigaltzia erabaki zuten.

Urruti samar billatu zioten echia ta bigaldu zuten nai baño geruago.

—Orain ikasiko du bizitzen, ziyon ama gajuak, igarriko diyo ez daukala echian bezela etzan ta usteltzen egoterik, lana egin biarko du nai ta nai ez, gizon egingo da.

Ametsak, ametsak ziran oyek guziyak. Alper jua zan, ta alper iraun zuben eche berrian egon zan bitarte guzian.

Errechin samarren izena zuben nagusi berriyak, bañan ajola ziyon Premiñ'i.

—Aspertuko aiz, esaten zuben bere artian nagusiya karrašika ikusten zubenian, ta bere alperkeriko bizitza aspergarriari eutsitzen ziyon len bezin sendo ta gogotsu.

Esan, esan al guziyak; erriyeta erriyetaren gañian; jotzera ere irichi zan. Guziya alperrik. Alperkerirako jayua nunbait eta il arte alperra izan biar.

Ezer egingo bazuben abereai bezela *¡aida!* ari biar eta nagusiyak buruari jira egin ordurako etzaten zan, ez eguzkian bildurrik ez loka-zagatik ajolik.

Gurdiyakin bigaltzen bazuten, gurdiyan bertan etzaten zan ta abereak joaten ziran nai zuten lekura.

Batian bidetik irten ta ogei metro bidian bera erori ziran. Bei bat gelditu zan zanko bar autziyarekin, bestiak adarra oso ondatua, gurdiya kurpill bat chetua ta Premiñ bakar bakarra irten zan ezeren ajerrik gabe.

Nagusiyak ebañ ebañ egin zuben, esan al guziyak esan zizkan. Ezer esan ez baliyo bezela. Egun guchi barru an zuten mikeletia, abereak gurdi ta guzi denda batian sartu zirala, chirchillatu zituztela ango krištaltal ta egur guziyak eta ondocho ordaindu biarrarian arkitzen zala.

—Aski da, esan zuben nagusiyak, askenekua izango da. Ez det une bat geyago echian irukiko alper gaizto ori. Deitu ziyon bada ta esan ere bai.

—Begira, zurekin ezin burutu det. Ezer egiten ez dezu ta gañera detan guziya galdu azi biar nazu. Jakin zazu bada naikua dala, ta morroi berri bat ekartzera nuala.

—Ederki egingo du, erantzun zion Premiñ'ek, ekarri beza, bada emen morroi bat bakarrentzat lan geyegi dago.

A. DARRA